NERABEZARO BETEAN



Unai Iturriaga
Zugaza-Artaza
(1974 Durango, Bizkaia)

Doinua: Baserrian jaio nintzan
Neurria: Neurri berezia. Zortzi puntukoa

1 Nerabezaro betean
eta nortasun **krisian**
galtzerdi baten zulotik
munduari **ihesian**
"Hemen nago!" bat gatibu*
hortzek osatu **hesian**
flan baten sendotasunez
eguneroko **bizian**
pila bako* robot bat naiz
hemen jaiki ta jausi **han**
horren lekuz kanpo nola
traktore bat **poesian**
txakur gorotz bat airean
grabitate **gabezian**
orbitatik kanpo nabil
DBH **Galaxian**.

2 Ta nire gorputz hau zer da?
Goma2a*, **dinamita**?
Hormonen ring-ean lehian
fisika eta **kimika**.
Burua eta gorputza
cutter batez **ebakita**
sentitzen naiz inon ondo
itsasten ez den **Post-ita**
galtzontzilo bat lurrean
fosiltzeraino **utzita**
kulero bat goi-tentsio
kable baten **eskegita***
maniki bat bezain zatar
harri bat bezain **polita**
ez egin barre berdintsu
gabiltzala **badakit-ta**.

3 Nor ez da sentitu inoiz
lurreko txikleen **pare**?
Euli bat mokordo baten
sagar batean **zizare**
edo puzker bat *blowing in the wind*
wifi bidez sarez **sare**
toki guztietan traba
egiten duen **zutabe**.
Sudurra pintzaz itxita
edan behar den **edabe**
hori omen da bizitza
ta gu bizitzan **nerabe**
erabat maite ez dugun
geure buruaren **jabe**
elkar onartuko dugun
esperantza galdu **gabe**.

* ***gatibu*** = *preso*
bako = *gabeko*
Goma2a = *lehergai izena*
eskegita = *zintzilikatua*